

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zergadunaren arretarako bulego-sarea hedatu du Ogasunak, Donezteben bulego berria irekita

Errentaren eta Ondarearen hurrengo kanpainan martxan egongo den esperientzia pilotua da; Malerreka, Baztan eta Bortzirietako mankomunitateei eskainiko zaie arreta

Astelehena, 2017.eko apirilak 3

Nafarroako Zerga Ogasunak Nafarroa iparraldeko zergadunaren arretarako lehenengo bulegoa ireki du Donezteben. [Zerga-iruzurraren Aurkako 2016-2019 aldirako Planean](#) jasotzen den neurria da, eta inguru horretako alkateek egindako eskaeraren ondorioz, [2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan](#) jaso zen.

Merkatarien Karrikako 6. zenbakian dago bulegoa, eta astelehenetik ostiralera 08:30 etik 14:30era egongo da irekita zergadunen arretarako. Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile bat, administrazioko laguntzaile bat eta PFEZ zergaren maila ertaineko teknikari bat jarri ditu zona horretan Nafarroako Zerga Ogasunak.

Esperientzia pilotua da, uztailera artekoa, 2016ko Errenta eta Ondare Aitorpenarekin lotuta dagoena. Erregistro Ofizial gisa jardungo du bulegoak, eta Iruñeko, Lizarrako, Tafallako eta Tuterako zergadunen arretarako gainerako bulegoetan egin daitezkeen tramite berberak egin ahal izango dira, baita PFEZ aitorpenak ere.

Halaber, mugako langileen eta batasuneko eragiketen fiskalitateari buruzko informazioa ere emango du Ogasunak Donezteben; izan ere, bere kokaleku geografikoagatik, bereziki eragiten diete gai horiek eremu horretako zergadunei. [Nafarroako Zerga Ogasunaren webgunean](#) jarri da informazio hori.



Bulegoa, Merkatarien Karrikako 6. zenbakian.

Datorren ostegunean emango dituzte 2016ko Errenta eta Ondare Aitorpeneko Kanpainari buruzko xehetasunak; kanpaina hori amaitu ondoren, emaitzak aztertuko dituzte eta bulego horrek martxan jarraitzearen bideragarritasuna aztertuko da.